



Bilbao
PORT

2010

**BILBOKO PORTUAN ESKAINTZEN
DIREN ZERBITZUAN TASAK, TARIFAK
ETA BESTE PREZIO BATZUK**

Campo de Volantín, 37

48007 Bilbao (Spain)

Tel.: (34) 94 487 12 00

Fax.: (34) 94 487 12 08

www.bilbaoport.es

comercial@bilbaoport.es

PORTUKO INSTALAZIOEN ERABILERA BEREZIARENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

OHARRA

2010erako, tasek eta tarifek ez dute aldaketarik izango, eta % 95eko koefiziente zuzentzaileari eutsiko zaio. Koefiziente hori kalkulaturik dago dokumentu honek biltzen dituen balioetan.

Portuko agintariak ondoko tasak ordaintzeko eskatuko dute, itsasontziek, bidaiariek eta salgaiek portuko instalazio finko hauek erabiltzeagatik:

ITSAS SEINALIZAZIOKO ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

1. Tasa sortuko da itsasontzia edo ontzia zerbitzua jasotzen hasten denean, portuen zerbitzu-alderditik kanpo dauden Espainiaren jurisdikzioko uretan.

2. Hona hemen tasa honen elementu kuantifikatiboak: Itsasontziaren tonaje gordina, ontziaren unitatea edo dimentsioa, eta egiten den jarduera.

3. Hona hemen tasaren kuota:

- Merkataritza-ontziak, arrantza-ontzi izoztaileak eta, oro har, beren ezaugarriak direla-eta itsasontziaren tasa aplikatubahar zaien itsasontziak: 0,8489 euro itsasontziaren tonaje gordinaren 100 GT bakoitzeko urte naturalaren lehenbiziko hiru geldialdietan.
- Zazpi metro edo gehiagoko luzera duten eta nabigazioko lizentzia, bulegoko rola edo itsasontzien hornidura eduki behar duten jolas- edo kirol-itsasontziak: 4,2448 euro, itsasontziaren gehieneko luzera eta gehieneko zabalera biderkatuz lortzen den emaitzari dagokion metro koadro bakoitzeko, eta urte natural bakoitzeko.
- Zazpi metrotik beherako luzera duten eta nabigazioko lizentzia, bulegoko rola edo itsasontzien hornidura eduki behar duten jolas- edo kirol-itsasontziak: 10,6121 euro, itsasontziaren gehieneko luzera eta gehieneko zabalera biderkatuz lortzen den emaitzari dagokion metro koadro bakoitzeko.

4. Hona hemen zein diren tasa ordaindu beharko dutenak:

- Aurreko idatz-zatiko a) paragrafoan sartutako itsasontziak eta ontziak: urte naturaleko aurreneko hiru geldialdietan, sartzen diren portu guztietan.
- Aurreko idatz-zatiko b) paragrafoan sartutako itsasontziak eta ontziak: urtean behin; portuko agintariari egin beharko diote tasaren ordainketa, zehazki, itsasoko seinalizazioari begira bere jatorri-portuaren alderdi geografikoari dagokion agintariari.

5. Autonomia-erkidegoek, haien menpeko edo haiei lotutako portuko erakundeek, eta portuen, kaien eta portuko instalazioen baimena edo emakida duten titularrek informazio egokia eman beharko diote dagokien portuko agintariari, eta tasa likidatzeko behar diren datu zehatzak ere bai.

6. Portuko agintariak eta, hala behar denean, Estatuko portuek hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte autonomia-erkidegoekin eta haien mendeko edo haiei lotutako portu-erakundeekin, tasa hori kobratze aldera.

7. Emakidan edo baimenarekin jasotako portuetan, kaietan, eta nautika- eta kirol-instalazioetan, estimazio erraztuaren erregimenean eskatu ahal izango da tasa, betiere, emakidadunak edo baimendunak berariaz uko egiten ez badu. Emakiden edo baimenen zerga-kuota ezartzeko, azken bi urteetako emakidaren edo baimenaren trafikoko datu estatistikoak hartuko dira kontuan; eta aldian behin likidazio orokorra egingo da zenbatetsitako okupazioari dagokion zenbatekoan. Erregimen honetan sartzen direnek %20ko hobaria izango dute zerga-kuotaren zenbatekoan.

ITSASONTZIAREN TASA

I.- Lehen alderdian edo portu barreneko uretan, itsasontziak edo tresna flotatzaileak atrakatzeko edo ainguratzeko portura sartzeko eta bertan egoteko, itsasontziaren tonaje gordinaren 100 GT bakoitzeko –gutxienez 100 GT izanda– eta bertan emandako denbora aintzat hartuta:

- Moila edo pantalan arrimuan saiheska atrakatutakoak: 1,502330 euro.
- Moilei edo pantalanari mutur arrimu atrakatutakoak, beste itsasontzi bati arrimatuta amarratuak, buiei edo atrakalekuak ez diren bestelako puntu finkoei lotutako itsasontziei amarratuak, eta ainguratutako itsasontzien kontra atrakatuak: 1,364010 euro.

II.- Lehen alderdian edo portu barneko uretan, **itsasontziak edo tresna flotatzaileak emakidan edo baimenarekin jasotako atrakalekuetara sartzeko eta, hala behar**

denean, bertan egoteko, itsasontziaren tonaje gordinaren 100 GT bakoitzeko –gutxienez 100 GT izanda– eta atrakatzeko edo ainguratzeko postuan emandako denbora aintzat hartuta:

- a) Atrakatzea edo ainguratzea, emakidan edo baimenarekin jasotako ur-esparrua izanda: 0,938980 euro.
- b) Atrakatzea edo ainguratzea, emakidan edo baimenarekin jasotako ur-esparrurik izan gabe: 1,03778 euro.

Atrakatzeko edo ainguratzeko postuan egoteko I. eta II. idatz-zatietan ezarri den denbora ordu edo frakzio bateko denboraldietan zenbatuko da; eta gutxienez hiru ordu zenbatuko dira geldialdi bakoitzeko, eta hamabost ordu gehienez hogeita lau orduko geldialdi bakoitzeko.

Geldialdi berean hainbat atrakaleku erabiliz gero, egonaldi bakarra zenbatuko da geldialdi osorako. Horren ondorioz hainbat subjektu pasibo badaude, egonaldiko denbora proportzioan banatuko da, atrakaleku bakoitzean izandako egonaldiaren arabera.

III.- Portuko uretan edo atrakatzeko instalazioetan, ur-esparruenen emakidarik edo baimenik ez duten itsasontziak eta instalazio flotatzaileak **egonaldi luzea izateko, edo instalazio horiek luzaroan erabiltzeko**, itsasontziaren tonaje gordinaren 100 GT bakoitzeko –gutxienez 100 GT izanda– eta bertan emandako egunak edo frakzioak aintzat hartuta.

- a) Bidaiarien eta salgaien barruko trafikoko itsasontziak 7,254675 euro
- b) Dragatzeko edo hornidura egiteko erabiltako itsasontziak 7,254675 euro
- c) Eraikitzen, konpontzen, eraldatzen eta desegiten ari diren itsasontziak 2,421550 euro
- d) Langabezia biologikoa dela-eta edota lizentziarik ez edukitzeagatik azken descarga-lanak portuan egin duten arrantza-ontziak, eta gordailutze judizialean dauden itsasontziak 1,205835 euro
- e) Jarduerarik ez duten itsasontziak, arrantza-ontziak eta tresna flotatzaileak barne hartuta. 7,627385 euro
- f) Atoian eramateko, amarratzeko eta praktikajeko zerbitzuak eta portuko zerbitzuak egiteko erabiltzen diren itsasontziak 3,627385 euro
- g) Hilabetetik gorako egonaldia egiten duten bestelako itsasontziak. 7,254675 euro

Egonaldia edo erabilera luzea emakidan edo baimenarekin jasotako moiletan edo atrakalekuetan egiten denean, tasaren kuota aurreko koadroan ezarritakoaren %75ekoa izango da, betetzen den ur-esparrua emakidan edo baimenarekin jaso ez bada, eta %40koa, berriz, ur-esparru hori emakidan hartu bada.

IV.- Bigarren alderdian edo portuko kanpoko uretan edota emakida-erregimena duten portuetan, **itsasontziak edo tresna flotatzaileak atrakatzeko-postura sartzeko eta bertan egoteko**, tasaren kuota aurreko idatz-zatietan ezarritakoaren %30 izango da, dagokion moduan, betiere, alde batera utzita III. idatz-zatiaren a) eta b) letretan ezarrita dagoen kasua, kasu horretan kuota bere horretan utziko baita aldatu gabe.

II. alderdian edo portuko kanpoaldeko uretan ainguratuz gero, tasaren kuota 1,205835 izango da itsasontziaren tonaje gordinaren 100 GT bakoitzeko –gutxienez 100 GT izanda–, eta bertan emandako egun edo frakzio bakoitzeko. Kuota hori egonaldiko laugarren egunetik aurrera sortuko da, betiere, merkataritzako jarduerarik egin ez bada –hornidura barne hartuta–, kasu horretan, lana egiten hasi den egunetik aurrera sortuko baita tasa.

II. alderdiko ainguralekuan emandako denbora eta itsasontziak portuko zerbitzuak eta instalazioak bestela erabiltzeagatik egon daitekeen denbora bereiz zenbatuko dira.

Trafiko-mota jakin bateko zerbitzua egiten duten eta beren lanak ontzi-konpainia beraren edo –itsasontzien ustiapena elkarren artean banatzeko akordioak egin ondoren– konpainia-multzo baten esku utzi dituzten itsasontziek portu berean urte naturalean izaten duten geldialdi-kopuruaren arabera, tasaren kuota biderkatu egingo da, subjektu pasiboak aurrez eskatzen badu; hona biderkatzeko koefizienteak:

- 1. geldialditik 12. geldialdira. 1,00
- 13. geldialditik 26. geldialdira. 0,95
- 27. geldialditik 52. geldialdira. 0,85
- 53. geldialditik 104. geldialdira. 0,75
- 105. geldialditik 156. geldialdira. 0,65
- 157. geldialditik 312. geldialdira. 0,55
- 313. geldialditik aurrera. 0,45

Portura bakarrik hornidura jasotzera sartzen diren itsasontziei dagokienez, tasaren kuota 1. idatz-zatian ezarritakoaren %75 izango da.

Portu berean, urte natural bereko zazpigarren geldialditik aurrera, itsasontzi berberari ezarriko zaion kuota idatz-zati horretan jarritakoaren %65 izango da.

Itsasontziak portuko uretako I. alderdian dagoen dike lehorrera, mailara edo ontzitegira zuzeneko sarbidea izanez gero, tasaren kuota 4,843100koa izango da itsasontziaren tonaje gordinaren 100 GT bakoitzeko –gutxienez 100 GT izanda– eta behin bakarrik. Itsasontzia II. alderdian badago, aurreko kopuruaren %30 izango da kuota.

Itsasontzien Tonajeari buruzko Nazioarteko Hitzarmenari (1969) jarraiki, tonajerik eduki ezik, tonajeren balio zenbatetsi hau aplikatuko da:

Tonajearen balio zenbatetsia = $0,4 \times L \times Z \times G$; hor,

L = gehieneko luzera metrotan

Z = gehieneko zabalera metrotan

G = trazaduraren garaiera metrotan

KIROL- ETA JOLAS-ITSASONTZIEN TASA

I.- Emakidan edo baimenarekin jaso ez diren nautika- eta kirol-instalazioetan edo kaletan:

- a) Ontziak I. alderdiko edo portu barreneko uretako atrakalekuan edo ainguralekuan egoteko edo bertara sartzeko, okupatutako azalera-unitate bakoitzeko eta egutegiko egun edo frakzio bakoitzeko:

▪ Saiheska atrakatuta daudenak.	0,3745 euro
▪ Tente atrakatuta daudenak eta saihesa beste itsasontzi bati edo moilari ia atxikita dutenak.	0,1248 euro
▪ Porturako amarra duten ainguratze-postuan.	0,0728 euro
▪ Norberaren baliabideak erabiliz ainguratze-postuan.	0,0581 euro

Itsasbehera ekinokzial bizi eta handiena dagoenean, 2 metrotik beherako sakonera duten alderdietan, tasaren kuota aurreko koadroan adierazitako kopuruaren %65 izango da.

- b) Zerbitzuak eskura izateko, okupatutako azalera-unitate bakoitzeko eta egutegiko egun edo frakzio bakoitzeko:

▪ Ur-hargunea.	0,0250 euro
▪ Energia elektrikoaren hargunea.	0,0374 euro

Kontsumitutako ura eta energia elektrikoa fakturako dira tasaren likidazioa alde batera utzita.

- c) Negu-toki modura baliatzeko, konpontze- edo mantentze-lanetarako, edota portuan egonaldi luzeak izateko prestatuta ez dauden alderdietan,aldi baterako egonaldia lehorrean izateko, okupatutako azalera-unitate bakoitzeko eta egutegiko egun edo frakzio bakoitzeko:

▪ 7. egunera arte.	0,1248 euro
▪ 8. egunetik 14.era arte.	0,2497 euro
▪ 15. egunetik aurrera.	0,7491 euro

Portuan jatorria duten ontziei dagokienez, tasaren kuota a) eta b) letretan adierazitakoaren %80 izango da.

II.- Emakidan edo baimenarekin jasotako nautika- eta kirol-instalazioetan edo kaletan:

I. alderdiko edo portu barneko uretan, ontziak atrakalekuan edo ainguralekuan egoteko edo bertara sartzeko, okupatutako azalera-unitate bakoitzeko eta egutegiko egun edo frakzio bakoitzeko:

▪ Iragaitzako edo pasadizoko itsasontziak:	0,0624 euro
▪ Portuan jatorria duten itsasontziak:	0,0520 euro

Salbuespen gisa, ur-esparrua emakidan edo baimenarekin jaso ez badago, tasaren kuota idatz-zati honetan ezarritako kopuruaren bi halako izango da.

Okupatutako azalera metro koadroetan zehaztuko da, eta kopuru hori itsasontziaren gehieneko luzera eta gehieneko zabalera biderkatuz lortzen den emaitza izango da.

Itsasontziak II. alderdia edo portuko kanpoko urak baizik okupatzen edo erabiltzen ez dituenean, tasaren kuota aurreko I. a) eta II. idatz-zatietan I. alderdirako ezarri den kopuruaren %30n izango da, dagokionaren arabera.

BIDAIARIEN TASA

- a) Emakidan edo baimenarekin jaso ez diren itsas atrakalekuan edo estazioetan:

▪ Garraiatzen, ontziratzen edo lehorreratzten ari den bidaiaria.	3,390170 euro
▪ Garraiatzen, ontziratzen edo lehorreratzten ari den itsas bidaiaria.	3,993040 euro
▪ Motozikletak eta bi gurpileko ibilgailuak.	4,230255 euro

- Automobilak eta antzeko ibilgailuak. 9,676225 euro
- Autokarrak eta taldeko garraioko ibilgailuak. 52,018485 euro

Itsas bidaia turistikoko bidaiariei dagokienez, tasaren kuota 2,421550 eurokoa izango da bidaiari bakoitzeko eta portuan emandako egun edo frakzio bakoitzeko. Ontziratze edo lehorreratzeko portuan, bidaiariek aurreko koadroan adierazitako kuota ordainduko dute, ontziratze edo lehorreratzeko jarrita dagoena, alegia; eta ontziratu edo lehorreratu ondoko egunetan, berriz, iragaitzako bidaiariaren kuota ordaindu beharko dute.

Nabigazioa portu edo itsasadar baten zerbitzu-guneko uretan baizik egiten ez denean, edota tokiko bidaia turistikoa dauden itsasontziak direnean, ontziratze edo lehorreratzeko tasaren kuota honakoa izango da:

- Bidaiaria 0,069160 euro
- Motozikleta 1,205835 euro
- Automobila 3,024420 euro

Kasu horretan, estimazio erraztuaren erregimenean eskatu ahal izango da tasa, betiere, subjektu pasiboak berariaz uko egiten ez badu. Zerga-kuota ezartzeko, azken bi urteetako trafikoko datu estatistikoak hartuko dira kontuan; eta aldi behin likidazio orokorra egingo da, zenbatetsitako okupazioari dagokion zenbatekoan. Erregimen horretan sartzen direnek %30eko hobaria izango dute zerga-kuotaren zenbatekoan.

- b) Emakidan edo baimenarekin batera emandako atrakalekuetan eta itsasoko estazioetan, tasaren kuota a) idatz-zatian adierazitakoaren %50 izango da.

SALGAIAREN TASA

I.- Emakidan edo baimenarekin jaso ez diren eta salgaiak manipulatzeko diren **terminaletan eta bestelako instalazioetan:**

A) Salgaiak eta haiek garraiatzeko erabiltzen diren elementuak, egiten den lan-motaren arabera:

- a) Ontziratzean edo lehorreratzean, zenbait erregimenean ondorioz ateratzen den kuota aplikatuko zaie; hona erregimenak:

a.1) Salgai-multzoen erregimena: tasaren kuota zenbait kontzepturen ondorioz ateratako kopuruak –holakorik ateratzen bada– batzean lortutako emaitza izango da; hona kontzeptuak:

Salgaiak dagokien kopurua aplikatuko zaie, ondoko koadroan adierazitako artean, zein multzotakoak diren ikusita, Lege honen I. Eranskinean ezarritakoarekin bat:

SALGAI-MULTZOA	EURO/TONA
Lehenengoa	0,474430
Bigarrena	0,820325
Hirugarrena	1,294755
Laugarrena	2,174455
Bosgarrena	3,044180

Garraiatzean salgaiak jasotzeko erabiltzen diren ontziei, bilgarriei, zisternei edo bestelako elementuei –berdin dio salgaia galdutzat edo galkortzat jo den edo ez–, eta, era berean, lurreko garraiobideak direnez, ontziratzen edo lehorreratzen diren kamioiei, atoiei eta erdi-atoiei –hutsik nahiz salgaiz beterik egon–, kopuru hau aplikatuko zaie:

GARRAIO-MOTA	EURO/UNITATE
Edukiontzia 20´ (hala behar denean, garraiatzeko plataforma barne hartuta), 6 metrora bitarteko kutxa edo 6 metrora arteko plataforma duen kamioia	3,024420
Edukiontzia >20´ (hala behar denean, garraiatzeko plataforma barne hartuta), 12 metrora bitarteko kutxa edo 12 metrora arteko plataforma duen erdi-atoia, kamioia edo ibilgailu artikulatua	6,048840
Buru traktoreak	1,818585
Atoia duen kamioia (errepideko tren)	9,073355

Aurreko koadroan agertzen ez diren elementuei 1,512210 euro aplikatuko zaie tona bakoitzeko.

Garraiatzeko elementua hustuta dagoela salgaia dela jotzen bada, dagokion multzoaren zenbatekoa aplikatuko zaio, eta ezin izango da erregimen erraztua ezarri.

a.2) Estimazio erraztuko erregimena: ondoren agertzen diren garraiobideetan garraiatutako salgaiei dagokienez, zerga-kuota zehazteko, ondoko kopuru hauek aplikatuko zaizkio karga-unitate (ku) bakoitzari:

KARGA-UNITATEAREN MOTA	EURO/KARGA-UNITATE
------------------------	--------------------

Edukiontzia £20´ (hala behar denean, garraiatzeko plataforma barne hartuta), eta 6 metrora bitarteko kutxa duen kamioia.	34,506120
Edukiontzia >20´ (hala behar denean, garraiatzeko plataforma barne hartuta), eta 12 metrora bitarteko kutxa duen erdi-atoia, kamioia edo ibilgailu artikulatu	54,805690
Atoia duen kamioia (errepideko tren)	88,311715

Hutsik doazen garraibideei a.1) idatz-zatian ezarritako kuota aplikatuko zaie.

Subjektu pasiboak hala eskatzen badu, erregimen hori itsasontzi berean dagoen unitate-karga osoari aplikatuko zaio.

- b) Itsasotik joan-etorrian dabiltzanean, betiere, salgaiak eta haien garraibideak erregimen horretan sartu badira, tasaren kuota a) idatz-zatian adierazitakoaren arabera kalkulatu da. Tasa hori, B) letran aipatzen den igarotze-alderdiaren okupazioa –horrelakorik badago– barne hartuta, deskargan salgaia deklaratu duen subjektu pasiboak likidatuko du.

Itsasotik joan-etorrian garraiatutako salgaiak eta haien garraibideak, jatorria edo helburua artxipelago bereko interes orokorreko beste portu batean dutenak, tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira, betiere, igarotze-alderdiaren okupazioa baimentzen ez bada eta baimen hori artikulatu honen 1. idatz-zatian ezarritako denboraldia baino luzeagoa ez bada, hala izatekotan, B) letran ezarritako kuota ordaindu beharko baita.

- c) Ontziz aldatzean, kuota hau aplikatuko da:

c.1) Atrakatuta dauden itsasontzien artean: a) idatz-zatian ezarritako kuotaren %50.

c.2) Atrakatuta dagoen beste itsasontzi bati saihesta atxikita duten itsasontzien artean: a)

idatz-zatian ezarritako kuotaren %30.

- d) Portu baten zerbitzu-alderdian edo itsasadar batean barruko itsas trafikoa, eta, era berean, hornidurarako salgaiekin ari direnean, zerga-kuota a) idatz-zatian ezarritakoa izango da. Kasu horretan, egindako lanetako bat baizik ez da likidatuko.

- e) Lehorreko trafikoa ari direnean eta karga hausten bada, a) idatz-zatian jasotako kuotaren %75 aplikatuko da.

B) Igarotzeko alderdiaren okupazioa.

Itsas garraioan lehorreko ibilgailu bat daramaten salgaiei lau ordutik gorako denboraldian igarotze-alderdia okupatzea baimentzen bazaie, edo bestelako kasuetan ontziratzeko edota lehorreratzeko eguna –eta, hala behar denean, aurreko edo ondoko eguna ere bai– gaingitzen duen denboraldian okupatzea baimentzen bada, tasaren kuota hauxe izango da: A) idatz-zatiko zenbatekoa gehi 0,1020 euro metro koadro eta bertan emandako egun edo frakzio bakoitzeko. Azken kopuru horri, bestalde, gehikortasun-koefiziente hauek aplikatuko zaizkio, okupazioaren iraupenaren arabera:

7. egunera arte. 1

8. egunetik 30.era arte. 5

31. egunetik 60.era arte. 10

Salbuespen gisa igarotze-alderdiaren okupazioa baimentzen bada 60 egunetik gorakoa den denboraldi baterako, gehikortasun-koefizientea 20koa izango da 61. egunetik aurrera.

II.- Emakidan edo baimenarekin jaso diren eta salgaiak **manipulatzeko diren terminaletan eta bestelako instalazioetan:**

- Ontziratzean edo lehorreratzean: I.A) idatz-zatiaren a) letran ezarritakoaren %50.

- Itsas igarotza egin bitartean: I.A) idatz-zatiaren b) letran ezarritakoaren %25.

- Ontziz aldatzean: I.A) idatz-zatiaren c.1) letran ezarritakoaren %20.

- Itsasoko barne-trafikoaren egitean, betiere, lanak emakidan edo baimenarekin jasotako instalazioetan egiten badira, bai eta hornidura-lanetan ere: I.A) idatz-zatiaren d) letran ezarritakoaren %50. Haietako batek baizik ez badu emakida edo baimena jaso, d) letran ezarritako kuota aplikatuko da.

- Lehorreko igarotza egin bitartean: I.A) idatz-zatiaren e) letran ezarritakoaren %65.

b) Atrakalekurik emakidan edo baimenarekin jaso ezean, salgaiei eta haien garraibideei ondoko kuota aplikatuko zaie, egiten den lanaren arabera:

- Ontziratzean, lehorreratzean, itsas igarotzean edo itsasoko barne-trafikoan: I.A) idatz-zatiaren a), b) eta d) letran ezarritako kuotaren %90. Alabaina, itsasoko barne-trafikoan aritzean eta salgaiak manipulatzeko instalazio batek baizik ez badu emakida edo baimena jaso, I.A) idatz-zatiaren d) letran ezarritako kuota bera aplikatuko da.

- Ontziz aldatzean: I.A) idatz-zatiaren c) letran ezarritakoa.

- Lehorreko igarotza egin bitartean: I.A) idatz-zatiaren e) letran ezarritako kuotaren %65.

Itsas igarotzean eta ontziz aldatzean, deskargan salgaia deklaratu duen subjektu pasiboari likidatuko zaio tasa hori.

HOBARIAK

Espainiak itsas bidaietako plataforma logistiko gisa nazioartean duen zeregina bultzatze eta finkatze aldera, eta itsas trafikoei une bakoitzean dituzten nazioarteko lehiakortasun-baldintzetara Espainiako portuak egokitzeko asmoz, hobari hauek aplikatuko dira:

- a) Itsasontziaren tasaren kuotari:
 - a.1) Itsas bidaietako turistikoan dabiltzan itsasontziei, aurreko edo ondoko geldialdiko portua Europar Batasuneko bada: %20.
 - a.2) Itsas bidaietako turistikoan dabiltzan itsasontziei, aurreko eta ondoko geldialdiko portua Europar Batasuneko bada: %30.
 - a.3) Itsas bidaietako turistikoan dabiltzan itsasontziei, jatorrizko portutzat jotzen den portu batean geldialdia egiten badute: %20.
 - a.4) Itsas bidaietako konpainia bereko itsasontziei, denen artean, gutxienez, 12 geldialdi egiten badituzte jatorrizko portutzat jotzen den portu batean: %30.
- a.1) eta a.2) idatz-zatietan aipatutako hobariak bateraezinek dira beren artean.
Era berean, a.3) eta a.4) idatz-zatietan ezarritako hobariak bateraezinek dira beren artean.
- b) Salgaiaren tasaren kuotari:
 - b.1) Nazioarteko itsas igoeretan dauden salgaiei: %70 gehienez.
 - b.2) Europar Batasuneko beste herrialderen batean jatorria duten eta ontziratzen diren salgaiei, eta, era berean, Europar Batasuneko beste herrialde batera eramateko lehorreratzen diren salgaiei, betiere, gorpilik gabeko ataletan garraiatzen badira itsasontzian: %40 gehienez.Hona hemen hobari hau kuantifikatzeko parametroak edo elementuak, subjektu pasiboari dagokionez:

- Jarritako trafiko-mota.
 - Jarritako trafiko-bolumena, eta urteko ebaluazioa, aintzat hartuta karga-unitateak, ibilgailu-kopurua edo tona salgai.
- Ministerio Aginduen bidez, Estatuko Portuen Kontseilu Errektoreak horrela proposatuta, eta portuko agintariak adierazitakoa entzun ondoren, behar bezala zehaztuko dira hobari horiek aplikatzeko bete behar diren baldintzak eta geldialdiak, aurreko elementu funtsezko horietatik abiatuta. Horrez gain, zehatz mugatuko dira itsas bidaietako jatorri-portutzat eta itsas bidaietako konpainiatzat hartzeko bete beharreko baldintzak.

Intermodalitatea sustatzeko, portuak estatuko eta nazioarteko kate logistikoetan areago txertatzeko, eta, era berean, erkidegoko kabotajea bultzatzeko, hobari hauek aplikatuko dira:

- a) Itsasontziaren tasaren kuotari:
 - a.1) Europar Batasuneko portuen artean zerbitzu erregularra egiten duten itsasontziei: %20.
 - a.2) Europar Batasuneko portuen artean zerbitzu erregularra egiten duten ro-ro itsasontziei: %50. Hobari hau bateraezina da aurreko letran adierazitakoarekin.
- b) Bidaiarien tasaren kuotari:

Europar Batasuneko portuen artean zerbitzu erregularra egiten duten itsasontzietan eramaten diren garraio-erregimeneko bidaiariei eta bidaiari-erregimeneko ibilgailuei: %20.
- c) Salgaiaren tasaren kuotari:
 - c.1) Europar Batasunean jatorria izanda ontziratzen edo lehorreratzen diren salgaiak: %10.
 - c.2) Jatorria eta helmuga Europar Batasunean izanda, ontziratzen edo lehorreratzen diren salgaiei, betiere, Europar Batasuneko portuen artean zerbitzu erregularra egiten duten itsasontzietan eramaten badira: %20.
 - c.3) Jatorria eta helmuga Europar Batasunean izanda, ontziratzen edo lehorreratzen diren salgaiei, betiere, Europar Batasuneko portuen artean zerbitzu erregularra egiten duten ro-ro itsasontzietan eramaten badira: %40.
 - c.4) Portuko zerbitzu-alderditik trenbidez ontziratzen edo lehorreratzen diren salgaiei: %20.

Portu bakoitzean trafikoa handitzeko eta sendotzeko, ontzi-, bidaiari- eta merkantzia-tasen kuota likidoari hobariak ezarriko dizkio Portuko Agintaritzak. Kuota likidotzat hartzen da kuota osoari lege honetan aurreikusitako gainerako hobariak ezarri ondoren geratzen dena. Baldintza hauek bete behar dira hori egiteko:

- a) Hauek jaso ahal dituzte hobariak: Portuko Agintaritzarekin dagokion hitzarmenean trafiko garrantzitsuen konpromisoa hartuta duten subjektu pasiboak eta Portuko Agintaritzak bakoitzaren enpresa-planetan estatuko edo lurraldeko ekonomian eragina duten trafikotzat, lehentasunezkoetat edo estrategikotzat onartu direnak, hala, trafiko-mota zehatz batzuei egokitutako merkataritza-ekintzak eta sektore pribatuarekin lankidetzan eragiketarako egin eta merkatuaren baldintzetara egokitzeko.
- b) Hauek dira kuantifikatzeko parametroak edo elementuak, subjektu pasiboari dagokionez:
 - 1) Ekarrirako trafiko-mota.
 - 2) Ekarrirako trafikoaren bolumena eta urteetan izandako bilakaera, GT unitatetan, eskala-kopurua, bidaiari-kopurua, merkantzia-tonak, edukiontziak eta ibilgailuak.

c) Hobariaren zenbatekoak ez du izan behar dagokion tasaren % 40 baino handiagoa.

d) Portuko Agintaritzaren bakoitzaren enpresa-planak muga jarri behar dio atal honetan araututako hobarien zenbateko osoari, eta, horretarako, kontuan hartu behar ditu eskaeraren bilakaera, ezaugarriak eta baldintzak, merkatuaren nazioarteko ezaugarriak eta Portuko Agintaritzaren errentagarritasun-maila, baliabideak sortzeko beharraren arabera. Azken bi ekitaldietan ontziari, bidaiariei eta merkantziari ezarritako tasekin guztira bildutakoaren batezbestekoari ezarriko zaion ehunekoak izango da muga hori. Ehunekoak ez du izan behar % 10 baino handiagoa.

Ministerioaren aginduz, eta Estatuko Portuen Erakunde Publikoak, Portuko Agintaritzaren entzun ondoren, hala proposatuta, hobari horiek aplikatzeko kondizioak eta eskalak zehaztu behar dira, goian aipatutako oinarriko elementuak kontuan izanda.

Urrutiratuta edo uharte batean egonez gero, hobari hauek aplikatuko dira:

- a) Itsasontziaren tasaren kuotari:
- a.1) Balear Uharte, Kanariar Uharte, Ceuta edo Melillako portuen eta Europar Batasuneko portuen artean zerbitzu erregularra egiten duten salgai-itsasontziei eta garraio-erregimenekoak diren bidaiari-itsasontziei: %50.
- Penintsulako portuetan, hobari hau bakarrik aplikatuko da zamaturako eta deskargatutako tonen erdia edo gehiago uharteetako, Ceutako edo Melillako portuetan ontziratatu edo lehorreratu den salgai bati dagokionean.
- Aitzitik, ez da hobaria aplikatuko uharteetako, Ceutako edo Melillako portuetan, zamaturako eta deskargatutako salgaiaren erdia baino gehiago itsas igarotze-erregimenekoa edo ontziz aldatzeko erregimenekoa denean.
- a.2) Artxipelago bereko portuen artean zerbitzua egiten duten garraio-erregimeneko bidaiari-itsasontziei eta salgaien itsasontziei: %80.
- b) Bidaiarien tasaren kuotari:
- b.1) Balear Uharte, Kanariar Uharte, Ceuta edo Melillako portuen eta Europar Batasuneko portuen artean bidaiari-erregimenean dabiltzan ibilgailuei eta garraio-erregimeneko bidaiariei: %60.
- b.2) Artxipelago bereko portuen artean dabiltzan garraio-erregimeneko bidaiariei eta bidaiari-erregimeneko ibilgailuei: %80.
- c) Salgaien tasaren kuotari honako hobari hauetako bat aplikatuko zaio, uhartearen arteko itsas igarotzari begira ezarri den salbuespenari kalterik egin gabe:
- c.1) Balear Uharte, Kanariar Uharte, Ceuta edo Melillako portuen eta Europar Batasuneko portuen artean zerbitzua egiten duten itsasontzietan garraiatutako itsasontziei: %40.
- Penintsulako portuetan, hobari hau bakarrik aplikatuko zaie uharteetako edo Ceuta edo Melillako portuetan jatorria duten salgaiei.
- Aitzitik, uharteetako edo Ceutako edo Melillako portuetan, hobaria ez zaie aplikatuko itsas igarotzeko edo ontziz aldatzeko erregimenean dauden salgaiei.
- c.2) Artxipelago bereko portuen artean zerbitzua egiten duten itsasontzietan garraiatutako salgaiei: %80.
- c.3) Garraiatzean salgaiak jasotzeko erabiltzen diren ontziei, bilgarriei, zisternei edo bestelako elementuei –berdin dio salgaia galdutzat edo galkortzat jo den edo ez–, eta, era berean, lurreko garraio-bideak direnez, Balear Uharte, Kanariar Uharte, Ceuta edo Melillako portuetan ontziratzen diren eta helmugatzen Europar Batasuneko porturen bat duten kamioiei, atoei eta erdi-atoiei kopuru hau aplikatuko zaie: %70.

Ingurumen-praktika hobek sustatzeko, hobari hauek aplikatu behar zaizkie ontzien tasen kuotei:

- Ingurumena errespetatzeko baldintza zehatz batzuk bete izana egiaztatzen duten ontziei, arauak eta nazioarteko hitzarmenek eskatutakoa hobetuz: % 3.
- MARPOL 73/78ko hondakin likidoak utzi izana egiaztatzen duten ontziei, lege honen 87. artikuluan ezarritakoaren arabera: 20 € utzitako tona bakoitzeko; gehienez ere, gainerako hobari guztien zenbatekoaren % 10.

MERKATARITZAKO ZERBITZUEI DAGOZKIEN TARIFAK

T-7 TARIFA. BILTEGIRATZEA, LOKALAK ETA ERAIKINAK

Salgaiek ondoko zenbateko hauek ordainduko dituzte metro koadro edo frakzio bakoitzeko eta egutegiko egun eta frakzio bakoitzeko:

ESTALI GABEKO AZALERAK IGAROTZE-ALDERDIA	
EGUNAK	EURO
1.tik 2.era, biak barne	0,00
3.etik 10.era, biak barne	0,0255
11.etik 30.era, biak barne	0,1021
31.etik 60.era, biak barne	0,2043
61.etik aurrera	0,4086

BILTEGIRATZEKO ALDERDIA	ESTALI GABEAK EURO	ESTALIAK EURO
Reina Victoria, Princesa de España, Príncipe de Asturias, Bizkaia, Adosado, Enlace eta Nemar kaiak	0,046575	0,089038
A1, A2, A3, AZ1 kaiak, Industrialdea eta Zierbenako beste guneak	0,034258	0,089038
Zorrotza	0,038356	0,077681

T-8 TARIFA. HORNIDURAK

TARIFA	KONTZEPTUA	EURO	UNITATEA
T-8 (A)	Ur-hornidura	1,5298m3	
T-8 (B)	Energia elektrikoaren hornidura		
-Santurtzi aldea:	Goi tentsioa	0,1042kw/h.	
	Behe tentsioa	0,1348kw/h.	
-Beste alderdi batzuk:	Goi tentsioa	0,1273kw/h.	
	Behe tentsioa	0,1595kw/h.	

T-9 TARIFA. HAINBAT ZERBITZU

TARIFA	KONTZEPTUA	EURO	UNITATEA
T-9 (C)	Zorrotzako uhal garraiatzaile	388,2538	Ordua
T-9 (P)	Bidaiarien pasabidea		
	-Pasabide eramangarria	154,1596	Eguna
	-Pasabide finkoa	330,5867	Eguna
T-9 (R)	Ro-Ro arrapala	173,6865	Ordua

HONDAKIN SOLIDOAK EDO LIKIDOAK HARTZEKO ZERBITZUA ERABILTZEN EZ DUTENENTZAKO TARIFA FINKOA

<u>Itsasontziaren tamaina (GT)</u>	<u>Tarifa finkoa - euroak</u>
Otik 1.000raino	56,18
1.001etik 5.000raino	105,34
5.001etik 10.000raino	210,69
